



DOMUSA TEKNIK 40 MLK

MENDI LASTERKETA

ARAUDIA

2022

ANTOLATZAILEA:



INSTITUZIO
LAGUNTZAILEAK:





DOMUSA TEKNIK 40 MLK, distantzia luzeko mendi lasterketa bat da, Ultra Trail izenez ere ezagun dira lasterketa mota hauek. Urola erdiko mendi eta herriak zeharkatuz, Azpeitian hasi eta amaituko da lasterketa.

Mendizaletasuna eta herri horietako guztietako turismoa eta ekonomia ere bultzatu nahi ditugu, lasterketako partaideei zein publikoari bertako txokoak, paraje naturalak eta ondare kulturala eta arkitektonikoa ezagutzera emanaz. Azken finean, mendizaletasuna, bertako euskalkien aberastasuna eta ingurumenaren babesa dira kirol-proba horren bidez sustatu nahi ditugun balioak, eta, aldi berean, jendeak ideia horiekin identifikatu eta lotzea nahi genuke *DOMUSA TEKNIK 40 MLK* mendi lasterketa

1. ANTOLAKUNTZA:

DOMUSA TEKNIK 40 MLK Mendi Lasterketa, Azpeitiko Lagun Onak M.B.-k antolatzen du. (Kirol Elkarteen Erregistroko zenbakia: 300 [1986ko Maiatzaren 19an erregistratua]).

2. EGUNA ETA LEKUA:

Lasterketa, 2022ko Maiatzaren 14an ospatuko da. Goizeko 8:00tan emango zaio irteera Azpeitiko Enparantza Nagusitik eta ezinbestekoa izango da Antolakuntzak emandako argibide denak jarraitzea. Lasterketa honetan parte hartzeak, araudi hau eta antolakuntzak www.domusateknik40mlk.com web gunean argitaratutako informazio eta betebeharrak guztiak onartzea dakar berarekin.

3. IBILBIDEA:

Lasterketak, 65km eta 7400 metroko desnibel metatua dauka (3700+). Azpeitian hasi eta amaituko da, tartean, Urola erdiko hainbat mendi eta herrixka zeharkatu ondoren. Hauek dira pasa beharreko lekuak:

- Azpeiti
- Arroita (Arauntza)
- Sañoa
- Komizulotza
- Gazume
- Zelatun
- Hernio
- Trintxera
- Santa Ageda
- Murumendi
- Mandubia
- Izazpi
- Hiruarrieta (Samiño)
- Larrume-txiki
- Munoaundi



- Loiola
- Izarraizko atea
- Xoxote
- Azpeitia

Neurketak ez daude homologatuta.

4. PARTE HARTZEA:

Parte hartzaile guztiek, proba egunean 18 urtetik gorakoak barne eta federatua izan edo ez izan, kirol-jarduera honek dakarren arriskua onartzen dutela adierazten dute eta araudi honetan azaltzen diren puntu guztiekin ados daudela ere bai. Dena den, Antolakuntzak, proba egin aurretik, azterketa mediku bat egitea gomendatzen die parte hartzaile guztiei.

5. EZINBESTEKO MATERIALA:

- Haize babesgarria
- Bisera edo buffa.
- 1l ur eraman ahal izateko bidoia edo poltsa.
- Manta termikoa (gutxienez 1,2m X 2,1m)
- Mugikorra

Eguraldi txarra izanez gero:

- Txaketa iragazgaitza txapelarekin.
- Galtza edo malla luzeak (belauna tapatua eraman beharko da). Galtza pirata eta galtzerdi luzeekin ahalko da irten, beti ere, hanka guztia tapatua badao.
- Kamiseta manga luze termikoa.
- Eskularruak

Derrigorrezkoa izango da ezinbesteko material guztia korralitoan sartzerakoan erakustea eta lasterketa guztian zehar soinean eramatea. Materialaren kontrola lasterkari guztiei ibilbideko edozein puntutan egin ahal izango zaie, irteera eta helmuga puntuak barne. Derrigorrezko material guztia soinean ez badarama, berehala lasterketatik kanporatua izango da.

Derrigorrezko materiala aurkezten ez duenak, ezingo du proban parte hartu.

Lasterketa amaitu ondoren, derrigorrezko material guztia soinean ez daraman lasterkaria, lasterketatik kanpo geldituko da.

6. KATEGORIAK:

(Proba egunean, lasterkariak duten adina hartuko da kontuan)

- GIZONEZKO eta EMAKUMEZKOAK: 18 urtetik gorakoak.



7. TXAPELKETA:

- BANAKAKO DOMUSA TEKNIK 40 MLK TXAPELKETA
 - Parte hartzaile guztientzat da.
 - Gizonezkoak eta emakumezkoak.

- BAILARAKO 40 MILAK TXAPELKETA
 - Azpeitia, Errezil, Bidania-Goiatz eta Beizaman erroldatutako kirolarientzat izango da soilik.
 - Lehen gizonezkoa eta lehen emakumezkoa.

8. SARIAK:

BANAKAKO DOMUSA TEKNIK 40 MLK TXAPELKETA

Kategoria absolutoa, gizonezkoak eta emakumezkoak:

1. Txapela, garaikurra, 800€ eskudirutan eta bertako produktuekin osatutako saski bat.
2. Garaikurra eta 500€ eskudirutan.
3. Garaikurra eta 300€ eskudirutan.

BAILARAKO DOMUSA TEKNIK 40 MLK TXAPELKETA

Lehen gizonezkoa eta lehen emakumezkoa:

1. Garaikurra eta oparia.

9. IZEN-EMATEA:

Gehienez, 400 korrikalarik ahal izango dute parte hartu. Izen emateak, internet bidez egingo dira, lasterketaren web gunean, www.domusateknik40mlk.com eta www.kronoak.com web gunean, kreditu txartelaren bidez eta 2021eko Azaroaren 18, arratsaldeko 18:00tatik aurrera. Izen ematea egin eta 72h pasa ondoren, ordainketarik ageri ez bada, ezeztatutzat emango da izen emate hori.



- **Prezioak:**

IZEN EMATE DATA	PREZIOA	
	FEDERATUAK (Euskal Mendizale Federazioan federatuak daudenak)	GAINONTZEKOAK
2021-11-18tik 2022-03-18 arte	60€	65€
2022-03-18tik 2022-05-05 arte	70€	75€

Behin izena emateko kuota ordainduta, lasterketan parte ez hartzea erabakitzen duenari, 2022ko Martxoaren 31a, 23:59ak bitarteko epean, ordaindutakoaren %100 bueltatuko zaio, horretarako kasu hauek gertatu behar direlarik:

- Korrikalariaren istripu, gaixotasun larri edo heriotza.
- Senar/emazte, lagun edo lehen mailako familia lotura duen norbait larri gaixotuta ospitalizatzea edo hiltzea.
- Korrikalariaren istripu edo gaixotasun larri baten kasuan, beharrezkoa da proba ez egitea aholkatzen duen mediku-txostena aurkeztea. Txosten hori, e-posta bidez bidali beharko da.
- 2022-ko Apirilaren 1eko 0:00tatik aurrera, ez da inongo diru itzulketarik egingo, arrazoia edozein dela ere.
- Edozein izen-emateren baliogabetza, domusateknik40mlk@gmail.com bidez egin beharko da, beti ere, izen-ematearen erreferentzia zenbakia adieraziz.
- Korrikalari kopurua betetzen bada (400 partaide), itzarote zerrenda irekiko da. Bajak dauden heinean, itzarote zerrenda horretatik beteko dira, beti ere, ordena jarraituz.
- Antolakuntzak bere erabilerarako 20 dorsal erreserbatuko ditu.

- Izen emateak honakoa bermatzen du:

- Lasterketan parte hartzea
- Istripu aseguru
- Erantzun zibileko aseguru
- Lasterketan zehar osasun laguntza
- Anoa postuak
- Txip bidezkoa kronometrai sistema
- Korrikalarien poltsa
- Dutzak
- Suspertze zerbitzua (fisioterapeutekin)
- Road book e-posta bidez



- Doako garraio zerbitzua, lasterketa uzten dutenak, Azpeitira ekartzeko, beti ere, antolakuntzak zehaztutako puntuetatik.
- Antolakuntzak eskubidea izango du parte hartzaileen datuak (izen-abizenak, jatorria, kategoria, dortsal zenbakia, emaitzak, etabar...), zein, proban zehar egindako argazki eta irudiak, hedabideetan eta Interneten argitaratzeko; beraz, proban erregistratzeak berekin dakar berariaz eta erreserbarik gabe oniritzia ematea datu horiek antolatzaileak erabiltzeari, aurka egiteko eskubideari kalte egin gabe. Parte hartzaileei dagozkien datu eta zerrenda guztiak, publikoki kontsultatu ahal izango dira izena ematen den une beretik.
- Erabiltzaileak izen-ematea hirugarren persona baten izenean egitekotan, bai plataformaren bidez, bai horren bitartez kudeatutako kirol-proben bidez, persona horrek zihurtatzen du interesdunaren berariazko aurretiko baimena duela lege-baldintza hauetan jasotakoaren arabera.

10. SEINALEZTAPENA:

Ibilbidea, probako karteekin, banderatzuekin eta zintarekin behar bezela markatua eta ikusteko moduan egongo da. Seinalezitutako bidea jarraitzea, derrigorrezkoa izango da, mozketarik egin gabe, mozketak horrek, ingurumenaren higadura eta degradazioa eragin bait dezake.

11. ANOA GUNEAK:

Helmugako anoa guneaz gain, bederatzi anoa gune izango dira ibilbidean zehar. Gune horietan, produktu energetikoak eta hidratatzaileak egongo dira.

Anoa gune bakoitzean, zabor ontziak egongo dira, hondakin bakoitza nora bota behar den adierazten duten karteekin, **DERRIGORREZKOA** izango da zabor bakoitza bere lekura botatzea. Hau betetzen ez duen lasterkaria, kanporatua izango da.

ANOA GUNEAK	DISTANTZIA	ZER DAGO?
Komizulotza	8,7km	Likidoa
Iturburu	19km	Likidoa + solidoa
Santa Ageda	27,6km	Likidoa
Mandubia	33,9km	Likidoa+solidoa+pasta
Pagotxeta	41,6km	Likidoa + solidoa
Larrume txiki	48,3km	Likidoa
Izarraizko atea (Ikasberri)	53,8km	Likidoa+solidoa+pasta
Pistako langa	56,8km	Likidoa
Xoxoteko aterpea	59,7km	Likidoa
Helmuga	65km	Amaierako anoa gunea



12. KANPOKO LAGUNTZA:

Lasterketan zehar, korrikalarien edo kanpokoen laguntza eta anoa, guztiz debekatuta dago, antolatzaileek horretarako jarritako tokietan izan ezik (anoa guneak). Erbi lanik ere, ez da onartuko eta animaliekin lagunduta joatea ere debekatua egongo da (zakurrak, etabar...)

13. KONTROL GUNEAK:

Antolatzaileek hainbat kontrol gune jarriko dituzte, eta horietatik pasatzea derrigorrezkoa izango da. Kontrol guneak, erraz ikusteko moduan kokatuak egongo dira eta horietatik pasatzen ez dena, kanporatua izango da.

Antolakuntzak emandako txip batek zihurtatuko du lasterkaria bertatik igaro den ala ez. Honez gain, lasterkari guztiek, dortsala ikusgai eraman beharko dute lasterketa osoan zehar.

Kontrol gune hauetan. Antolakuntzako kide eta bolondresak egongo dira, beraz, errespetua eskatzen dugu hauengan.

Kontrol guneak honakoak izango dira:

- Gazume 11km
- Hernio 14km
- Iturburu 19km
- Murumendi 29,5km
- Mandubia 33,9km
- Izazpi 39,3km
- Izarraizko atea (Ikasberri) 53,8km
- Xoxoteko aterpea 59,7km

14. LASTERKETA UZTEKO LEKUAK:

Proba bertan behera uzten duten eta lesiorik ez duten korrikalariak, Komizulotza, Trintxera, Santa Ageda, Mandubia eta Izarraizko atea izango dituzte lasterketa uzteko lekuak, beraz, beren kabuz eta ahalik eta azkarren leku horietara joan beharko dute garraiatuak izan daitezen.



15. KANPORATZE PUNTUAK ETA ORDUTEGI MUGAK:

Helmugan sartzeko gehienezko denbora **hamabi ordu eta erdi (12,5h)** izango da.

<u>LEKUA</u>	<u>ORDUA</u>	<u>KM</u>
ITURBURU	11:45 (3h45)	19km
MANDUBIA	14:45 (6h45)	33,9km
IZARRAIZKO ATEA (IKASBERRI)	17:45 (9h45)	53,8km

- Antolakuntzako arduradunek, kanporatze puntuetan aurrez jarritako denboretan sartzen ez den kirolaria, probatik kanpo utzi ahal izango dute eta helmugara garraiatuko dute.
- Lasterkari bat, honako arrazoiengatik ere kanporatua izan daiteke:
 - Araudia ez betetzeagatik
 - Lasterketan izena eman gabeko persona batek edo animalia batek lagunduta joatea (erbi lanaz baliatzea), bai ibilbidean, bai baimendutako guneeetatik kanpo.
 - Markatutako ibilbide osoa ez osatzeagatik.
 - Dortsala ikusteko moduan ez eramateagatik.
 - Beste lasterkari, antolakuntzako kide eta bolondresei, errespetu falta erakusteagatik.
 - Antolatzaileen aholkuei kasurik ez egiteagatik.
 - Anoa guneeetan, zaborra ez sailkatzeagatik edo lurrian botata uzteagatik.
 - Ingurumena ez errespetatzeagatik (zabor eta hondakinak, ibilbidean zehar utzi edo botatzea).
- Eguraldi txarragatik edo segurtasun arrazoiengatik, antolakuntzak, proba gelditzeko, ibilbidea aldatzeko edo ordutegi-mugak aldatzeko eskubide osoa izango du.
Ezarrutako ordutegi-mugen aldaketa gertatuko balitz, ordutegi-muga berri horietara iritsi ezin diren korrikalari guztiak lasterketaz kanpo geldituko dira eta helmugara garraiatuak izango dira.

16. KRONOMETRAJEA:

- Lasterketaren kronometrajea, txiparen bidez egingo da. Irabazleek, behin-behineko sailkapenak jarri ondoren, 30 minutu izango dituzte erreklamazioak egiteko. Zerrenda hori, kronometraje gunean egongo da arratsaldeko



20:00etarako. Arratsaldeko 20:30tarako, behin-behineko saridunen zerrenda argitaratuko da. Parte hartzaileek, sailkapenak argitaratu eta 24 ordu izango dituzte erreklamazioak egiteko, denbora tarte hori igaro ondoren, erreklamaziorik ez badago, sailkapenak behin-betikoak izango dira.

- Markak egiaztatzea helburu hartuta, probaren sailkapenak eperik gabe mantenduko dira, eta antolatzailearen webgunean kontsultatu ahal izango dira, ezeztatzeke eskubideari kalterik egin gabe.

17. DORTSALEN BANAKETA:

Dorsalen banaketa Azpeitiko plazan egingo da, 2022ko Maiatzaren 13an, ostirala, 17:30etatik 20:00etara, eta, probako egun berean, 6:00etatik 7:00etara, leku berean. (Aldaketaren bat egonez gero, Web orrian adieraziko da).

Euskal Mendizale Federazioan federatutako lasterkariak, federatu txartela eta N.A.N aurkeztu beharko ditu dorsala jasotzeko garaian.

Lasterkaria identifikatutakoan, poltsa, dorsala eta txipa ematen dizkion antolakuntzako boluntarioak erabilera bakarreko identifikaziorako eskumuturrekoa jarriko dio unean bertan lasterkariari. Froga osoan zehar eskumuturrekoa eraman beharko du, hau izango baita, dorsalarekin batera, antolakuntzak lasterkarientzat egokitutako zerbitzu guztietara sarrera ziurtatuko dioena (irteera puntua, anoa-guneak, erretiratuentzako garraioa, osasun zerbitzuak, lasterkariaren poltsa jasotzea, dutxa-gunea, etab.)

18. KONTSIGNA ZERBITZUA:

Antolatzaileek kontsigna-zerbitzua eskainiko diete parte-hartzaile guztiei irteera/helmuga puntuan. Kontsigna-zerbitzua, Azpeitiko Berdura plazan egongo da kokatua.

Poltsen edukia ez da egiaztatuko, ondorioz, ez da erreklamaziorik onartuko. Baliozko objeturik ez sartzea aholkatzen da.

Poltsak identifikatzeko dorsal zenbakia erabiliko da, hori dela eta, poltsa jasotzerakoan dorsala erakutsi beharko da.



19. INGURUMENA:

Lasterketa, ia oso-osorik, natura gune zoragarri batean zehar igaroko da. Hori dela eta, ingurua babestea nahitaezkoa izango da eta debekatuta egongo da edozer gauza lurrera botatzea.

Horretarako, zaborra biltzeko ontziak jarriko dira anoa-gune amaiera guztietan. Anoa-guneetan, antolatzaileek ezarritako zaborraren sailkapena errespetatzea nahitaezkoa izango da.

Antolakuntzaren kezkarik handienetako bat ingurua babestea da. Horregatik, hondakin bihur litekeen edozer objektu dortsal zenbakiarekin markatuta eramatea derrigorrezkoa da (gelak, barratxoak, etab.). Materialaren kontrol-gune aleatorioetan egiaztatuko da markatuta daudela. Edozein moduz ere, markak erretiratzekoan aurkitutako hondakinak aztertuko dira, ondoren antolakuntzak neurriak hartu ahal izango dituelarik.

Arau hau hausten duena kanporatua izango da.

20. OSASUN ZERBITZUA:

- Antolakuntzak, Lasterketaren segurtasun zerbitzuetarako, Gurutze Gorria-ren laguntza izango du eta beharrezkoa izango da, edozer ezbehar izanez gero, hauei adieraztea.
- Antolatzaileek Larrialditarako osasun-zerbitzua jarriko dute ibilbideko lekurik estrategikoenetan. Honez gain, helmugan, dutxa, garbiketa eta lehen mailako zerbitzu medikua eskainiko dituzte, horren beharrean aurkitzen den parte-hartzaileentzat.
- Antolakuntzak, kirol-arriskueterako aseguru bat eta erantzun zibileko aseguru egingo dio parte-hartzaile bakoitzari; Bolondres bezala izena ematen duenari, aldiz, erantzun zibileko aseguru bakarrik egingo zaio, beraz, izena ematen duenak oniritzia ematen dio antolatzaileei beharrezkoak diren datuak aseguru-etxeari uzteko, proban zehar ezbeharren bat gertatuz gero, laguntza bermatuta egon dadin.

21. SEGURTASUNA:

Antolatzaileek, egoerak hala eskatuta, lasterketaren ibilbidea aldatzeko eta dagozkion gainerako aldaketak egiteko eskubidea daukate, eta baita bertan behera uzteko ere, eguraldiak hala eskatzen badu edo arrazoi nagusi batengatik, lasterketa-batzordearen adostasunarekin.

Lasterketa ixteko ardura duen erratz-taldeak partaide guztiak igaro direla egiaztatuko du.



22. LAGUNTZA EZBEHARRETAN:

Parte-hartzaileak laguntza beharrean dauden parte-hartzaileei laguntzera behartuta daude, eta baita kontroletan gorabeheren berri ematera ere. Hala ere, dortsalean, larrialdietarako telefono zenbakia izango du korrikalari bakoitzak.

23. ERANTZUKIZUNA:

Antolatzaileek beren gain hartuko dituzte ibilbidean zehar gertatzen diren istripu guztiak, baina korrikalariaren erruagatik edo utzikeriagatik gertatu bada istripua, antolatzaileek ez dute beren gain hartuko. Kasu hauetan, parte-hartzaileak beren buruari edo besteei egindako kalte guztien erantzule izango dira.

24. IRUDI ESKUBIDEAK:

Partaide denek, antolatzaileei eta beren babesleei lasterketaren inguruan egindako argazki edo hartutako irudiak askatasun osoz erabili eta argitaratzeko baimena ematen diete, epe mugarik gabe.

25. LASTERKETA BERTAN BEHERA UZTEA:

Lesio edo istripuren batengatik ez bada, korrikalariak ez luke proba bertan behera utzi behar igarotze-kontroletatik kanpo. Proba bertan behera kontrol-gunea baino lehen uztea erabaki duenak, proba ixteaz arduratzen direnei edo antolakuntzakoei jakinarazi beharko die, haiek txipa desaktibatu eta Azpeitira ekartzeko.

Korrikalariak dortsala gordeko du antolakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuei (garraioa, dutxak, helmugako anoa-gunea...) etekina ateratzeko.

Antolakuntzak aldi baterako gelditzera edo lasterketa bertan behera uztera behar dezake korrikalaria, egoerak bere osasun fisikoa edo segurtasuna arriskuan jartzen baditu.

Osasun-zerbitzura jotzen duten korrikalariak haien juzkuaren eta balorazioaren esku geratzen dira. Ondorioz, haien erabakiak onartu beharko dituzte. Osasun-zerbitzuek edozein kasutan erabaki hauek hartu ahal izango dituzte:

- Lasterketa jarraitzeko gai ez den edozein korrikalari kanporatzea (dortsala desaktibatuz).
- Arriskuan ikusten duten edozein korrikalari ebakatu egokien iruditzen zaien baliabidearen bitartez.



- Edozein korrikalari osasun-zentro batera eraman, haren egoerak egokiena hori dela erakusten badu.

Osasun-zentro batera eramanez gero, korrikalaria arduratuko da itzulera.

Istripu edo lesioagatik oinez kontrol-guneetara iristea ezinezkoa bada eta ebakuazioa beharrezkoa izanez gero, korrikalariak antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko du, salbamendu-zerbitzua martxan jartzeko. Korrikalari bakoitzari, kasu horietan, zein telefono zenbakitara deitu behar duen jakinaraziko zaio (dortsalean inprimatuta egongo da).

Korrikalariaren telefono-konpainiaren estaldura ezagatik zenbaki horiek erabili ezin diren kasuan, doako larrialdietako 112 zenbakia erabiltzea proba daiteke. Beste korrikalarien errespetua eta elkertasuna erabakigarriak izango dira horrelako kasuetan.

Korrikalariaren itzulera kontrol-guneko arduradunaren eta honako arauen arabera erabakiko da:

- Anoa-gunean edo segurtasun-esparruan proba bertan behera uzten duten eta lesionaturik ez dauden korrikalariak goian aipatutako puntu horietara joan beharko dute beren kabuz eta ahalik eta azkarren.
- 4x4 ibilgailuen bidez bakarrik irits daitekeen postuetan, salbamendu zerbitzua behar ez den kasuetan, kontrol bakoitzeko arduradunak erabakiko du korrikalariaren itzulera-unea.
- Muturreko eguraldiaren ondorioz proba osorik edo tarte batean bertan behera utzi behar denean, antolakuntzak geldirik dauden korrikalarien itzulera zihurtatuko du, denbora tarterik ahalik eta laburrenean.

Proba edozein arrazoi dela medio bertan behera utzi duten eta itzulera puntuetara ez joatea erabaki duten korrikalariak, igarotze-kontrolako arduradunei erabakia jakinarazi gabe, ez dira jada antolakuntzaren kontrolpean egongo.

26. IBILBIDE ALDAKETA:

Eguraldi txarrak hala behartuz gero, ordezko ibilbide bat egongo da. Horren berri korrikalariari emango zaio ahalik eta azkarren. Ibilbide aldaketaren erabakia irteera eman ondoren hartuko balitz, erabaki horren berri antolakuntzak egokien ikusten duen kontrol-guneren batean emango zaie partaideei.

Antolakuntzak lasterketaren oinarriak aldatzeko eta ustekabeko arrazoi garrantzitsuren bategatik proba bertan behera uzteko eskubidea izango du.



Lasterketak bertan behera uzteko erabakia irteera-datarako 15 egun edo gehiago falta direla hartzen den kasuan, arrazoiak edozein direla ere, inskripzioan egindako ordainketaren itzulera partziala egingo da. Itzulera horren zenbatekoa antolakuntzak egindako gastu finkoei aurre egiteko behar duen diru kopuruaren arabera izango da. Lasterketa bertan behera uzteko erabakia irteera-datarako 15 egun edo gutxiago falta direla hartzen den kasuan, edo lasterketa behin irten ondoren bertan behera gelditzen denean, ez da diru itzulerarik izango.

27. ARAUDI ALDAKETAK:

Antolakuntzak edozein unetan araudi hau hobetu, zuzendu edo alda dezake. Izen-ematea egiteak partaidea araudi honekin ados dagoela adierazten du.

28. ARDURAK:

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko antolakuntzak kontratatutako aseguruaren estalduraz gaindiko, partaide, laguntzaile edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalteen (galdu, lapurtu, puskatu...) ondorioz egindako erreklamazioen erantzukizunik.

DOMUSA TEKNIK 40 MLK proban izena eman duten guztiek beren borondatez eta norbere arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, partaideek eta beren oinordekoek, erantzukizun zibilari dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

29. SAILKAPENAK:

Behin-behineko sailkapenak partaideen eta jarraitzaileen eskura egongo dira lasterketak irauten duen bitartean. Antolakuntzak horretarako gune bat prestatuko du, ahal den heinean korrikalariak kontrol-puntu ezberdinetan egindako denborak eta kokapena denbora errealean emateko.

Lasterketako behin-behineko emaitzak web-orrian agertuko dira lasterketa-egunaren biharamunean.

30. ERREKLAMAZIOAK:

Erreklamazioak idatziz bakarrik aurkeztu ahal izango zaizkio antolakuntzari. Erreklamazioak egiteko epea 24 ordukoa izango da, behin-behineko sailkapenak lasterketaren web-orri ofizialean argitaratzen diren unetik kontatzen hasita. Erreklamazio horiek eta dagozkien erabakiak lasterketa amaitu eta gehienez bi hilabeteko epean aztertu eta jakinaraziko dira.

**31. ROAD BOOK-A:**

Lasterketaren aurreko astean korrikalari bakoitzari Road Book-a edo korrikalariaren eskuliburua bidaliko zaio e-postaz. Eskuliburu horretan lasterketari buruzko informazio baliagarria aurkitu ahal izango da: kontrol-guneetako mugak, anoa-postuak, osasun-zerbitzua, ikuslearentzat informazioa, etabar.

32. AHAZTU EDO GALDUTAKO OBJETUAK:

DOMUSA TEKNIK 40 MLK lasterketa bukatu ondoren, antolakuntzak, lasterketan zehar galdu edo ahaztutako objektuak hamabost egunez gordeko ditu. Jabeak epe horretan jaso beharko ditu bereak, antolakuntzak erabakitako ordutegi eta lekuan. Hamabost egun hauek igaro ondoren, antolakuntzak ez du mota honetako eskaerarik erantzungo.